

ALFABETO ZIRILIKOZ IDATZITAKO IZENAK EUSKARARA ALDATZEKO TRANSKRIPZIO-SISTEMA

(errusiera, bielorrusiera, ukrainera eta bulgaria)

1. AURKEZPENA

Alfabeto zirilikoa

Alfabeto zirilikoa Europaren ekialdeko eslaviar herri batzuek, tradizioz erlijio ortodoxoek, erabiltzen dute (errusiarrek, ukrainarrek, bielorrusiarrek, bulgariarrek, mazedoniarrek, serbiarrek...), bai eta behialako Sobietar Batasunaren eraginpeko Asiako herri batzuek ere (abjaziarrak, mongolek, tartariarrek, tajikek, turkmenek, kirgizek, uzbekoek, jakutiarrek...). Dena den, beste batzuk, Sobietar Batasuna desegin eta gero, latindar alfabetora lerratzen ari dira aspaldion (moldaviarrek, azeriarrak, mongoliarrek...).

Dirudenez, ziriliko izena ematen diogun alfabeto hau X. mendean asmatu zuen Bizantzioko misiolari batek, San Klementek, haren bidez Tesalonikako eslaviarrei ebanjelioa beren hizkuntzan jakinarazteko, kristautasuna irakasteko asmoz. Oinarria IX. mendean Zirilo eta Metodio bizantziar misiolari santuek asmatuiko alfabeto glakolitikoan dauka (glakolitikoa greziar alfabetotik eratorri eta Bulgaria aldean garatu zen). Halere, grezierak falta zituen eslaviar fonema batzuk adierazteko, grafema batzuk hebreeratik eta Ekialde Hurbileko beste hizkuntza batzuetatik mailegatu omen zituzten. Berehala, Eliza ortodoxoaren eskutik, alfabeto hori Ekialdeko eslaviarren artean hedatu zen, Bulgaria, Errusia eta inguruko herrialdeetako idazkera nagusi bihurtu arte. Gaurko errusiar alfabetoa 1708an finkatu zen, eta 1918ko erreformarekin lau letra baztertu ziren, gaurko moduan gelditu arte.

Gainerako herrialde eslaviarrek (poloniarrek, txekiarrek, eslovakiarrek, esloveniarrak eta kroaziarrek, kasu), katoliko erromatar edo protestanteak izanik, latindar alfabetoa hobetsi zuten, Baltikoko herrialdeetan bezalaxe.

Alfabeto zirilikoa aski ongi prestatua zen eslaviar hizkuntzak idazteko, baina Kaukasia eta Asiako mintzaireri aplikatu nahi izan zaienean, haien fonema bereziak transkribatzeko, zailtasun ez gutxi gainditu behar izan zituzten, eta zeinu diakritiko ugariz osatu zen. Ez da harritzekoa, beraz, sobietar menekotasunetik irteetan, jende batzuek beren izaera historiko eta linguistikoagatik hurbilago zituzten beste herrien alfabetoetara hurbildu nahi izatea. Horretara, moldaviarrek, hizkuntzaz errumaniarrak izanik, burujabetasuna lortu bezain laster, ziriliko alde batera utzi eta latindarrera pasatzea erabaki zuten. Gauza bera gertatu da azeriarrarekin, beren turkiar dialektoa orain latindar grafiaz idazten dute eta. Mongoliarrek ere gauza bera egiten saiatu dira, ziriliko utzi eta, Txinako mongolen antzera, beren antzinako alfabeto zaharra (uigurra) eskuratzeko.

Interesgarria da, halaber, Serbiaren kasua. Serbiarrek eta kroaziarrek hizkuntza bera dute, baina lehenengoek, ortodoxoak izanik, beren hizkuntza alfabeto zirilikoz idazten dute, eta besteek, kroaziar katoliko erromatarrek, latindar letrak erabiltzen dituzte. Halere, herri bien arteko etsaigo tradizionala gorabehera, kokapen geopolitikoagatik eta Mendebaldearekiko harreman ekonomiko eta kulturalak gero eta ugariagoak izanik eta mendebaldar munduarekin harreman errazagoak izateko, aspaldion Serbian ere latindar alfabetoa aurrera egiten ari da, eta Belgraden, adibidez, kaleen izenak eta kartel publiko gehienak halaxe agertzen dira.

Alfabeto zirilikoaren hitzak euskaraz idazteko irizpideak. Azken urteotako joerak

Ez dira asko, egia esan, euskarak orain arte eslaviar hizkuntzekin izandako harremanak. Hizkuntza horietako izenak gure alfabetora ekartzeko orduan, zubi-hizkuntzaren grafia erabili ohi da: ia beti frantsesarena Ipar Euskal Herrian eta gaztelaniarena Hego Euskal Herrian.

Alfabeto zirilikoaren erabiltzen duten hizkuntzen izenak euskarara ekartzeko orduan, euskararen oinarrituriko irizpideak –eta ez inguruko erdaretan oinarriturikoak– ezartzeko lehen saio taxuzkoak 1990eko hamarkadaren hasieran egin ziren. *Munduko leku-izenak* (Elhuyar-Elkar, 1991) eta *Munduko pertsona-izenak* (Elhuyar-Elkar, 1992) liburuetan berariaz aztertu zen gaia, eta alfabeto zirilikoak euskal grafia ekartzeko irizpide batzuk ezarri ziren. Hurrengo urteetan, lan horietan proposatutako bidea baliatu zuten, ia erabateko adostasunez, euskal entziklopediek eta euskarazko komunikabideek. Berrikiago, 2005ean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaratutako *Onomastika* lanak ere, gaingiroki bada ere, aurreko lan horietan proposatutako bidea berretsi du. *Berria* egunkariaren *Estilo liburua* ere, aski labur bada ere, antzeko irizpideak finkatu ditu. Aipatutako lan horietan guztietan ageri diren irizpideak, guztiz bat ez badatoz ere, aski hurbil daude bata bestetik.

Euskaltzaindiak, alfabeto zirilikoak baliatzen duten hizkuntzen euskararako transkripzio edo transliterazioari orain arte heldu ez badio ere, jada arauak ditu hizkuntza horietako leku-izen batzuen euskarazko grafia. Hala, 154. arauan (*Europako eskualde historiko-politiko nagusiak*), Errusiako zenbait leku-izen arautu ziren, hala nola *Adigea, Aga-Buriatia, Baxkortostan/Baxkiria, Buriatia, Evenkia, Osetia-Alania, Jamalia, Kabardino-Balkaria, Kalmukia, Karatxai-Txerkesia, Khakasia, Koriakia, Mordovia, Nenetsia, Sakha/Jakutia, Taimiria, Txetxenia, Txukoika, Txuvaxia, Udmurtia...*

Transkripzio-sistemak eta euskararako transkripzio praktikoa

154. arauan alfabeto zirilikoaren gaia berariaz aztertu ez bazen ere, argi eta garbi igartzen da zein den araututako leku-izen horien grafiaren atzean datzan irizpide nagusia: euskararako transkripzio praktikoa bat erabiltzea, euskal entziklopedia eta estilo-liburuek zabalduko ildo nagusiarekin bat datorrena.

Euskararako transkripzio praktikoa bat proposatzea ez da, noski, aztertutako lehen aukera. Lehenetsi beharreko aukera, zalantzarik gabe, nazioarteko transliterazio-sistema bat¹ –alfabeto latindarra erabiltzen duten hizkuntza guztietarako balio duena– hartzea litzateke, baldin eta nazioartean adostasuna balego, beste alfabeto batzuetan –grekoa, kasurako– gertatzen den moduan.

Zoritxarrez, gaur egun nazioartean ez dago adostasunik, ez da oraino sistema baturik adostu alfabeto zirilikoak alfabeto latindar bihurtzeko. Badira, nolnahi ere, nazioarteko erakunde batzuek onetsitako transliterazio-sistemak², eta Errusiak berak eta alfabeto zirilikoaren erabiltzen duten beste estatu batzuek badute siste-

¹ Komeni da argi bereiztea *transliterazio* eta *transkripzio* kontzeptuak. *Transliterazioa* prozedura hertsia eta normalizatua da, idazkera-sistema baten grafema bakoitzari beste idazkera-sistema bateko grafema bat edo grafema-talde bat esleitzen diona, ahoskera dena dela; hau da, teorien ez dago hizkuntza jakin bati lotua, alfabeto bati lotua baizik. Horrek esan nahi du alfabeto hori erabiltzen duen edozein hizkuntzarentzat baliagarria dela. *Transkripzioa*, berriz, ez da hain sistema hertsia, eta helburu-hizkuntza bakoitzari lotua dago: jatorri-hizkuntzaren fonetika ahalik eta erarik zehatzenean jasotzea du helburu. Horrek esan nahi du sistema fonetiko-fonologikoa bera edo bertsua duten hizkuntzentzat baino ez duela balio transkripzio bakoitzak.

² Hauek dira transliterazio- eta transkripzio-sistema nagusiak:

- **Transliterazio zientifikoa edo Nazioarteko Sistema Akademikoa.** Kroazieraren alfabetoan oinarrituta dago, eta 1898an kodifikatu zen Prusian, liburutegietan erabiltzeko. Hizkuntza eslaviarrei buruzko linguistikan erabili izan da. Hartan oinarritu dira GOST eta ISO sistemak. Zeinu diakritikoak erabiltzen ditu
- **GOST 16876-71 [errusieraz: GOCT 16876-71].** Sobietar Batasuneko Geodesia eta Kartografiako Administrazio Nazionalak sortu zuen 1971n, eta nazioarteko estandar bat izan zen. 2002an, Estatu Burujabeen Erkidegoko Errusia, Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Kazakstan, Kirgizistan, Tajikistan, Turkmenistan eta Uzbekistanek baztertu egin zuten GOST 16876-71 sistema, eta ISO 9 sistema ofizialdu zuten GOST 7.79-2000 izenaz.
- **ISO 9: 1995** (ISO erakundeak emandako nazioarteko transliterazio-estandarra, alfabeto zirilikoaren erabiltzen duten hizkuntza eslaviarren eta hizkuntza ez-eslaviarren karaktereak alfabeto latindarrera aldatzeko. Diakritikoak baliatuz, karaktere ziriliko bakoitzari karaktere latindar baliokide bat esleitzen dion sistema unibokoa da. Horrek esan nahi du ISO 9 sistemaren bidez egindako transliterazio bat alfabeto zirilikoaren eraman daitekeela atzera –alderantzizko transliterazioa–, baina jatorri-hizkuntza jakin gabe ere. Gaur egungo bertsioa 1995eko da, eta ISO 9: 1986 bertsioa ordezkatu du (badira beste bi bertsio, are lehenagoak: ISO/R 9: 1954 eta ISO/R 9: 1968).
- **ALA-LC.** Estatu Batuetako biblioteketan eta argitalpenetan erabiltzen da (ALA, American Library Association; LC, Library of Congress). Azken bertsioa 1997an argitaratu zuten ALA eta LC erakundeek. Sistemak, unibokoa izateko, diakritikoak eta karaktere-pareak erabiltzen ditu. ALA-LC sistemak taula bat du alfabeto zirilikoaren erabiltzen duen hizkuntza bakoitzerako.
- **BGN/PCGN.** Sistema aski irakurerraza eta ahoskaeraza da ingelesdunentzat (BNG, US Board on Geographic Names; PCGN, Permanent Committee on Geographical Names for British Official Use). BGNk 1944an onartu zuen, eta PCGNk 1947an. Sistemak ez du dieresiaz aparteko diakritikorik erabiltzen; horrez gainera, aukerakoa da puntu goratua (·) erabiltzea anbiguotasun batzuk saihesteko. Askotan, sistemaren bertsio erraztu bat erabiltzen da ingelesezko argitalpenetan BGN/PCGN sistemak taula bat du alfabeto zirilikoaren erabiltzen duen hizkuntza bakoitzerako.

ma ofizial bat zirilikoa transliteratzeko, zeinek berea, baina sistema horiek, oro har, ez dute lortu sustraitzerik hizkuntza nagusietan, ia gutziak zeinu diakritiko bereziak erabiltzen baitituzte. Horregatik, hizkuntza nagusietan ez dira nazioarteko sistemak erabiltzen, eta hizkuntza bakoitzak bere sistema/k sortu du/ditu, hizkuntza horietako bakoitzean letrak nola ahoskatzen diren oinarritzat harturik: transkripzio praktikoa, alegia.

Horren ondorioa, jakina, transkripzio-aniztasuna da. Adibidez, Errusiako *Чебоксáры* eta *Грóзный* hiri-izenak honela idazten dira alfabeto latindarra erabiltzen duten hizkuntza batzuetan:

errusiera	ingeleza	gaztelania	frantsesa	alemana	katalana	errumaniera	suediera
Чебоксáры	Cheboksary	Cheboksary	Tcheboksary	Tscheboksary	Txeboksari	Ceboksari	Tjeboksary
Грóзный	Grozny	Grozni	Grozny	Grosny	Grozni	Grozni	Groznyj

Transkripzio praktikoa badu helburu argi bat: *jatorriz alfabeto batean idatzitako izenak bigarren alfabeto batera aldatzea, bigarren alfabeto erabiltzen duten irakurleek beren irakurtze-ohiturak nabarmen hausti edo behartu gabe irakurri ahal izan dituzten*. Hizkuntza idatzitik abiatzen da, baina kontuan hartzen ditu ahoskeraren gako nagusiak, jatorrizko ahoskera nabarmen ez desitxuratzearren. Hala ere, esan beharra dago transkripzio praktikoa ez dela transkripzio fonetiko xehe eta gutzi fidagarria, transkripzio praktikoa xedeaz ez baita hizkuntza arrotz bat ahoskatzen ikasteko sistema bat erakitzea. Izen arrotzak irakurri ahal izateko hitzarmenezko arau praktikoa bat besterik ez da.

Praktikotasun horrek gidaturik, grafia batzuk sinplifikatu egiten dira. Euskararako transkripzio praktikoa oinarritzeko hiru irizpide ditu:

- Irakurketa sinplifikatzea, espezializatu gabeko publikoarentzat onargarria eta ulergarria gerta dadin, erabateko zehaztasunaren kaltetan bada ere.
- Idazketa sinplifikatzea, idazleen eta argitaratzaileen lana errazteko.
- Euskara batuaren sistema grafikoarekin bat datorren sistema bat antolatzeko –ahal den neurrian–, gure bi auzo-erdaen jarraitzaile hutsa izango ez dena, eta, ondorioz, aldaerak eta grafia-bikoiztasunak ahalik eta gehien murriztuko dituen.

Horiek horrela, erabilera-eremuak kontuan harturik, Euskaltzaindiak bide hauek hobesten ditu errusiera, bielorrusiera, ukrainera eta bulgariara euskarara aldatzeko:

1. Goi-mailako lan akademikoetan edo espezializatueta, erabateko zehaztasuna behar denean eta alderantziko transliterazioa egiteko modua ziurtatu behar denean, nazioarteko ISO 9 transliterazio-estandarra, bera baita, bai ISO Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundeak, bai alfabeto zirilikoa erabiltzen duten Errusia, Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Kazakstan, Kirgizistan, Tajikistan, Turkmenistan eta Uzbekistan estatuek ofizial bihurtu dutena. Hala eta gutxi ere, Nazio Batuen transliterazio-sistemak erabiltzea ere ezin da gaitzetsi.
2. Komunikabideetan, literaturan, irakaskuntza ez espezializatueta, oro har, dibulgazioan, hau da, eguneroko erabileran, arau honetan ematen diren euskararako transkripzio praktikoa.

Euskararako transkripzio praktikoa prestatzeko erabilitako irizpideak

Alfabeto zirilikoa erabiltzen duten hizkuntza eslaviar horietako izenak euskaraz emateko, alfabeto horren eta gurearen arteko korrespondentzia fonetikoekin batera, Europako hizkuntza nagusietan erabili diren usadioak ere izan ditugu kontuan. Alde batetik, goi-mailako lan entziklopedikoetan eta zientzia-liburuetan letra batzuen gaineko zeinu diakritikoak (ğ, ě, ê, ž, ĭ, ů, č, š, ř, è, ù, â) ontzat eman badaitezke ere, beste hizkuntzetako komunikabide eta ohiko argitalpenetan eskuarki egiten dena kontuan izanik, eta erraztearren, kendu egin ditugu zeinu horiek.

Eslaviar hizkuntzetan badira fenomeno berezi batzuk bokal azentugabeetan. Errusieraz, adibidez, *o* azentugabea *a* gisa ahoskatzea. Hala, XIX. mendeko *Толстóу* idazle ezaguna, guk eskuarki *Tólstoí* deitua eta ahoskatua, errusieraz *Talstóy* gisa ezagutzen dute, eta *Борís* ponte-izen ezaguna *Barís* ebakitzen, guk *Bóris* esan arren... Antzeko zerbait gertatzen da *e* azentugabe eta azentudunetan ere, eta horren arabera *e* edota *je*, *ié* ebakitzen. Bestetik, kontsonante batzuen ondoko /i/ fonemak aurrekoa palatizatu egiten du. Fenomeno horiek, ordea, ez dira islatu transkripzio praktikoa, hala jokatzen duten frantsesak, gaztelaniak, ingelesak, alemanak, katalanak eta beste hizkuntza askok egiten duten modu berean. Aipatzeko da, azkenik, hitz-bukaerako kontsonante hosdun edo ozenak (*-b*, *-v*, *-d*, *-g*) gortu edo hosgabe ebakitzen direla (*-p*, *-f*, *-t*, *-k*).

Euskararako prestatutako transkripzio-sistema praktikoak grafemen balioa eskaintzen du, baina ez, nahitaez, grafema horiek kasu eta kokapen bakoitzean nola ahoskatu edo irakurri behar diren. Hau da, katalanaren edo ingelesaren antzera, letrik, hitz bakoitzaren arabera, ebakera bat edo beste izan dezakete eslaviar hizkuntzetan. Izan ere, hitza, azentua non duen, era ezberdinez irakurtzen da. Beraz, bokalak *a, e, i, o, u* transkribatu ditugu, izan dezaketen irekiera, itxiera edo neutralizazio-maila kontuan hartu gabe. Bestetik, *y* bokala *y* gisa transkribatzea proposatzen da, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez bezala. Grafema horrek gure *i* eta *e* arteko fonema bat adierazten du, ahoaren behealdean ebakia.

Goranzko diptongoak, ordea, euskal usadioekin bat, hitzaren hasieran *ja, je, jo, ju* gisa eman dira (Cf. euskaraz *jaka, jetzi, joko, jausi...*), baina hitzaren barruan eta bukaeran *ia, ie, io, iu (anaia, zelaiek, deiok* bezala). Beheranzkoak, aldiz, beti *ai, ei, oi, ui*.

Kontsonante batzuen ondoko *i* fonemak aurrekoa palatizatu arren (*ni > ñ, li > ll, ti > tt...*), erriesieraren eta beste eslaviar hizkuntza batzuen fenomeno automatiko hori ez da transkribatu, ez eta sandhi bilakaerak ere (Cf. euskaraz *ez dakit ba > ezakipa*). Beraz, latindar alfabetoan idatziriko alemanezko testu batean bezala, non irakurtzen jakiteaz gainera, *ie* taldea alemanez *i* luze gisa irakurri behar dela jakin behar den, eta *Diesel* abizena /*dīzel*/ ahoskatu, eslaviar hizkuntzetan ere badira kontuan hartu beharreko beste arauak ere, hemen azaltzekoak ez direnak.

Gainerako fonemei dagokienez (б, в, г, ґ, ҕ, д, ж, з, 3, с, ʃ, й, к, л, м, н, ъ, п, р, с, т, у, ф, х, ц, ч, ш, щ, я...), haien transkripzio-taula ematen da, grafema berak eslaviar hizkuntza guztietan beti balio berbera ez duela izaten gogorarazirik.

Transkripzio-taula prestatzean, ahaleginak egin dira argitasuna eta euskal erabilera adosteko, eta, ahal izan den neurrian, nazioartekotasuna ere zaintzeko. Horren ondorioz, euskal hitzetan inoiz gertatzen ez diren bi digrafo erabili dira: **zh** eta **kh**.

– Zirilikoko *ж* letra transkribatzeko, **zh** digrafoa proposatzen da. Adibidez, Pasternak errusiar idazlearen *Доктор Живаго* nobela famatuan agertzen da letra hori. Nobela horretako pertsonaia nagusiaren izena, gaztelaniaz eta ingelesez, *Zhivago* transkribatu da, eta frantsesez eta katalanez, berriaz, *Jivago*. Grafema hori transkribatzeko ez da komeni *j* letra erabiltzea, letra horren euskarazko ahoskera oinarritzkoa, Euskaltzaindiaren euskara batuaren ahoskera zaindua arauaren arabera (87. araua), <y> baita (Iparraldeko edo Bizkaiko mendebaldean, adibidez, duen balioaz) eta *j* letra beste kasu batzuetan erabiltzen baita transkripzio-taulan. Horregatik hobetsi da **zh** digrafoa, frantsesezko *j* gisa (edo Lekeition, Otxandion edo Legution *mendija* ebakitzen den bezala) ahoskatzeko.

– Zirilikoko *х* letra transkribatzeko, **kh** digrafoa proposatzen da, gaztelaniazko *j* gisa (Gipuzkoan eskuarki *joan, jaun, jator* edo *josi* hitzak ebakitzen diren bezala) ahoskatzeko, frantsesez, ingelesez eta katalanez egiten den moduan. Adibidez, *Чехос* errusiar idazlea *Txekhov* transkribatzeko da.

2. ALFABETO ZIRILIKOAREN EUSKARARAKO TRANSKRIPZIO PRAKTIKOA

Errusiera, bielorrusiera, ukrainera eta bulgarieraren euskararako transkripzio praktikoa

Zutabeen esanahia

1. Errusiera / Bielorrusiera / Ukrainera / Bulgariara: letra alfabeto zirilikoa (letra lau hizkuntzetakoa izan daiteke, hirukoa, bikoa edo bakarrekoa)
2. Euskararako transkripzio praktikoa (eu)
3. Gaztelaniarako transkripzio praktikoa (es)
4. Frantseserako transkripzio praktikoa (fr)
5. Ingeleserako transkripzio praktikoa (en)
6. Katalanerako transkripzio praktikoa (ca)
7. Alemanerako transkripzio praktikoa (de)
8. ISO 9 nazioarteko transliterazio-sistema
9. Bielorrusiako transkripzio-sistema ofiziala; Ukrainako transkripzio-sistema ofiziala; Bulgariako transkripzio-sistema ofiziala
10. Oharrak

Errostera Bielorrusia Ukraina Bulgaria	eu	es	fr	en	ca	de	ISO 9	transkripzio ofizialak bielorrusia ukraina bulgaria	Oharra
A, a Архангельск	<i>a</i> Arkhangelsk	<i>a</i> Arjánguelsk	<i>a</i> Arkhanguelsk	<i>a</i> Arkhangelsk	<i>a</i> Arkhanguelsk	<i>a</i> Archangelsk	<i>a</i> Arhángel'sk	<i>a</i> <i>a</i> <i>a</i>	kasu guzietan
B, b Новосибирск	<i>b</i> Novosibirsk	<i>b</i> Novosibirsk	<i>b</i> Novosibirsk	<i>b</i> Novosibirsk	<i>b</i> Novosibirsk	<i>b</i> Novosibirsk	<i>b</i> Novosibirsk	<i>b</i> <i>b</i> <i>b</i>	kasu guzietan
V, v Новосибирск	<i>v</i> Novosibirsk	<i>v</i> Novosibirsk	<i>v</i> Novosibirsk	<i>v</i> Novosibirsk	<i>v</i> Novosibirsk	<i>v</i> Novosibirsk	<i>v</i> Novosibirsk	<i>v</i> <i>v</i> <i>v</i>	kasu guzietan
Г, г Архангельск Новгород	<i>g</i> Arkhangelsk Novgorod	<i>g</i> (<i>e</i> edo <i>j</i> aurrean, <i>gr</i>) Arjánguelsk Novgorod	<i>g</i> (<i>e</i> edo <i>j</i> aurrean, <i>gr</i>) Arkhanguelsk Novgorod	<i>g</i> Arkhangelsk Novgorod	<i>g</i> (<i>e</i> edo <i>j</i> aurrean, <i>gr</i>) Arkhanguelsk Novgorod	<i>g</i> Archangelsk Novgorod	<i>g</i> Arhángel'sk Novgorod	<i>g</i>	kasu guzietan
Г, г (be) Гродна (ub) Гадяч	<i>h</i> Hrodna Hadiach	<i>h</i> Hrodna Hadiach	<i>h</i> Hrodna Hadiach	<i>h</i> Hrodna Hadiach	<i>h</i> Hrodna Hadiach	<i>h</i> Hrodna Hadiach	<i>g</i> Hrodna Grodna Hadiach	<i>h</i> <i>h</i> , <i>gh</i> ¹	Hrodna (Bielorrusiarako sistema ofiziala) Hadiach (Ukrainako sistema ofiziala)
Г, г (uk)	<i>g</i>	<i>g</i>	<i>g</i>	<i>g</i>	<i>g</i>	<i>g</i>	<i>g</i>	<i>g</i>	Letra hau ukrainenz bano ez dago
Д, д Краснодар	<i>d</i> Krasnodar	<i>d</i> Krasnodar	<i>d</i> Krasnodar	<i>d</i> Krasnodar	<i>d</i> Krasnodar	<i>d</i> Krasnodar	<i>d</i> Krasnodar	<i>d</i> <i>(m = dʒ)</i> <i>(n = dʒ)</i> <i>d</i>	kasu guzietan
Е, е (1) Перь Екатериноўр Ельцин (3)	<i>e</i> Perm <i>e</i> Jekaterinburg Jelzin	<i>e</i> Perm <i>e</i> (<i>y</i> / <i>ye</i>) Ekaterinburgo Yelstin	<i>e</i> Perm <i>e</i> Jekaterinburg Elsine, Elstin	<i>e</i> Perm <i>ye</i> Yekaterinburg Yelstin, Elstin	<i>e</i> Perm <i>e</i> Jekaterinburg Jelzin	<i>e</i> Perm <i>e</i> Jekaterinburg Jelzin	<i>e</i> Perm <i>e</i> Ekaterinburg El'cin	<i>e</i> <i>ie</i> <i>e</i>	(1) beherago zehazten diren kasuetan izan ezik (2) hitzaren hasieran (3) bokal ondoren (4) <i>ye</i> edo <i>y</i> ondoren
Андреев Достоевский (4) Прокопьевск	<i>ie</i> Andreev Dostoyevski <i>ie</i> Prokopjevsk	<i>ie</i> Andreev Dostoyevski <i>ie</i> Prokopjevsk	<i>ie</i> (it ondoren izan ezik) Andreev Dostoyevski <i>ie</i> Prokopjevsk	<i>ye</i> Andreev Dostoyevsky <i>ye</i> Prokopjevsk	<i>ie</i> Andreev Dostoyevski <i>ie</i> Prokopjevsk	<i>ie</i> Andreev Dostoyevski <i>ie</i> Prokopjevsk	<i>ie</i> Andreev Dostoyevskij <i>e</i> Prokopjevsk	<i>ie</i> <i>e</i> <i>e</i> <i>e</i>	bokal ondoren <i>ye</i> edo <i>y</i> ondoren

Erusiera Bielorrustera Ukraiinera Bulgariara	eu	es	fr	en	ca	de	ISO 9	transkripzio ofizialak bielorrustera ukraiinera bulgariara	Oharra
E, e (bg) Елена	e Elena	e Elena	e Elena	e Elena	e Elena	e Elena	e Elena	e	kasu guztietan
E, ě (1) Горбачёв Хрущёв (2) Пётр Потёмкин Орёл Королев	o Gorbachov Khrushchov io Piotr Potiomkin Oriol Korolov	o Gorbachov Jruschov io Piotr Potiomkin Potemkine Oriol / Oriol Korolov	e Gorbachev Khrushchev io Piotr Potemkine / Potiomkin Oriol / Oriol Korolov	e Gorbachev Khrushchev yo, e Pyotr Potiomkin Oriol / Oriol Korolov / Korolev	o Gorbachov Khrushov io Piotr Potiomkin Oriol Korolov	o Gorbatschow Chruschschow jo Piotr Potiomkin Oriol Korolow	e Elena e Gorbachëv Hruschëv e Pëtr Potëmkin Orël Korolëv	je (hitz-hasieram) / je (generako kasuetan) Jenakietve io Piotr Potiomkin Oriol Korolov	kasu guztietan ж, ч, и иа ии letren ondoren gamerako konstantean ondoren, hitz- hasieran, bokal artean eta ь edo 'b ondoren
Є, є (uk) Єнакєтє	ie Jenakietve	ie Yenakietve	ie Ienakietve	ie Yenakietve	ie Yenakietve	ie Jenakietve	e Ěnakietve	je (hitz-hasieram) / ie	Letra hau ukraineraz bano ez dago
Ж, ж Нижний Воронеж Брянск Живаго	zh Nizhni Voronezh Bryansk Zhivago	zh Nizhni Voronezh Bryansk Zhivago	j Nijni Voronej Bryejev Jivago	zh Nizhny Voronezh Bryansk Zhivago	j Nijni Voronej Bryejev Jivago	sch Nischni Woronesch Breschnew Schwago	z Nížnij Voronež Bryansk Zivago	je (hitz-hasieram) / z z z	kasu guztietan
К, к Казань	z Kazan	z Kazan	z Kazan	z Kazan	z Kazan	s Kasan	z Kazan	z z z	kasu guztietan
І, і (be) Мінск (uk) Луїцькє	i Minsk Ilitchivsk	i Minsk Ilitchivsk	i Minsk Ilitchivsk	i Minsk Ilitchivsk	i Minsk	i Minsk Ilitchivsk	i Minsk Ilitchivsk	i i	Letra hau bielorrustera eta ukraineraz bano ez dago
І, і (uk) Ізакєвич	i / j (hitz-hasieram) Izhakevitch	i / y (hitz-hasieram) Izhakevitch	i / y (hitz-hasieram) Izhakevitch	i / y (hitz-hasieram) Izhakevitch	i / y (hitz-hasieram) Izhakevitch	ji	i Izhakevitch	i / j (hitz-hasieram)	Letra hau ukraineraz bano ez dago
И, и Новосибірск	i Novosibirsk	i Novosibirsk	i Novosibirsk	i Novosibirsk	i Novosibirsk	i Novosibirsk	i Novosibirsk	i	Letra hau ez dago bielorrustera
И, и (uk) Ілєвич	y Halych	y Halych	y Halych	y Halych	y Halych	y Halych	i Halich	y	

Ernstiera	eu	es	fr	en	ca	de	ISO 9	transkripzio bielorrusiera ukrainera bulgariara	Oharra
И, и (1) Низиний Достоевский Грозный	ez da transkribatzen Nizini Dostoyevskiy Grozny	ez da transkribatzen Nizini Dostoyevskiy Grozni	ez da transkribatzen Nizini Dostoyevskiy Grozny	ez da transkribatzen Niziny Dostoyevsky Grozny	ez da transkribatzen Nizini Dostoyevskiy Grozni	ez da transkribatzen Nischini Dostoyevskiy Grosny	<i>j</i> Nizini Dostoyevskiy Grozny	(1) amateran <ajf> edo <ajf> dituen hitzetan	
(2) Йошкар-Ола	Йошкар-Ола	Йошкар-Ола	Йошкар-Ола	Йошкар-Ола	Йошкар-Ола	Йошкар-Ола	<i>j</i> Йошкар-Ола	(2) hitz-hazteran	
(3) Маикоп Толстой	Маикоп Толстой	Маикоп Толстой	Маикоп Толстой	Маикоп Толстой	Маикоп Толстой	Маикоп Толстой	<i>j</i> Маикоп Толстой	(3) gainerako kasuetan	
К, к Чебоксары	к Чебоксары	к Чебоксары	к Чебоксары	к Чебоксары	к Чебоксары	к Чебоксары	<i>k</i> Чебоксары	kasu guztietan	
Л, л Челябинск	л Челябинск	л Челябинск	л Челябинск	л Челябинск	л Челябинск	л Челябинск	<i>l</i> Челябинск	kasu guztietan	
М, м Самара	м Самара	м Самара	м Самара	м Самара	м Самара	м Самара	<i>m</i> Самара	kasu guztietan	
Н, н Магдан Солзхенцын	н Магдан Солзхенцын	н Магдан Солзхенцын	н (не hitzaren amateran, baldin eta u edo sa ondoren bada) Магдан Солзхенцын	н Магдан Солзхенцын	н Магдан Солзхенцын	н Магдан Солзхенцын	<i>n</i> Магдан Солзхенцын	kasu guztietan	
О, о Новосибирск	о Новосибирск	о Новосибирск	о Новосибирск	о Новосибирск	о Новосибирск	о Новосибирск	<i>o</i> Новосибирск	kasu guztietan	
П, п Пермь	п Пермь	п Пермь	п Пермь	п Пермь	п Пермь	п Пермь	<i>p</i> Пермь	kasu guztietan	
Р, р Новосибирск	р Новосибирск	р Новосибирск	р Новосибирск	р Новосибирск	р Новосибирск	р Новосибирск	<i>r</i> Новосибирск	kasu guztietan	
С, с Новосибирск	с Новосибирск	с Новосибирск	с (bi bokalen artean, ss) Новосибирск	с Новосибирск	с (bi bokalen artean, ss) Новосибирск	с Новосибирск	<i>s</i> Новосибирск	kasu guztietan	

	eu	es	fr	en	ca	de	ISO 9	transkripzio ofizialak bielorrusiera ukrainera bulgariera	Oharra
Erusiera Bielorrusiera Ukainera Bulgaria									
Т. т Владвосток	<i>t</i> Vladivostok	<i>t</i> Vladivostok	<i>t</i> Vladivostok	<i>t</i> Vladivostok	<i>t</i> Vladivostok	<i>t</i> Vladivostok	<i>t</i> Vladivostok	<i>t</i> t t	kasu guzietan
У. у Уфа	<i>u</i> Ufa	<i>u</i> Ufa	<i>ou</i> Oufa	<i>u</i> Ufa	<i>u</i> Ufa	<i>u</i> Ufa	<i>u</i> Ufa	<i>u</i> u u	kasu guzietan
В. в (во) Вьлгэў	<i>w</i> Bykhaaw	<i>w</i> Bykhaaw	<i>w</i> Bykhaaw	<i>w</i> Bykhaaw		<i>w</i> Bykhaaw	<i>w</i> Bykhaaw	<i>w</i> u	Letra hau bielorrusieraz baino ez dago
Ф. ф Уфа	<i>f</i> Ufa	<i>f</i> Ufa	<i>f</i> Oufa	<i>f</i> Ufa	<i>f</i> Ufa	<i>f</i> Ufa	<i>f</i> Ufa	<i>f</i> f f	kasu guzietan
Х. х Хабаровск Чехов	<i>kh</i> Khabarovsk Tshekhov	<i>j</i> Jabarovsk Chejov	<i>kh</i> Khabarovsk Tshekhov	<i>kh</i> Khabarovsk Chekhov	<i>kh</i> Khabarovsk Tshekhov	<i>kh</i> Khabarovsk Tshekhov	<i>h</i> Habarovsk Chehov	<i>ch</i> kh' h	kasu guzietan
Ц. ц Новокузнецк	<i>ts</i> Novokuznetsk	<i>ts</i> Novokuznetsk	<i>ts</i> Novokuznetsk	<i>ts</i> Novokuznetsk	<i>ts</i> Novokuznetsk	<i>z</i> Novokuznezsk	<i>c</i> Novokuznezck	<i>c</i> ts' ts	kasu guzietan
Ч. ч Челябинск	<i>tx</i> Tshejabinisk	<i>ch</i> Cheljabinsk	<i>tch</i> Tshejabinisk	<i>ch</i> Chelyabinsk	<i>tx</i> Tshejabinisk	<i>tch</i> Tshejabinisk	<i>č</i> Čeljabinsk	<i>č</i> ch' ch	kasu guzietan
Ш. ш Йошкар-Ола Пушкин	<i>x</i> Joshkar-Ola Pushkin	<i>sh</i> Yoshkar-Ola Pushkin	<i>ch</i> Ioshkar-Ola Pouchkine	<i>sh</i> Yoshkar-Ola Pushkin	<i>x</i> (bokal ondoren, f) Ioshkar-Ola Pushkin	<i>sch</i> Josehkar-Ola Pusehkin	<i>š</i> Joshkar-Ola Pushkin	<i>š</i> sh' sh	kasu guzietan
Щ. щ Благовещенск Шедрин	<i>sch</i> Blagoveshchensk Shehdryn	<i>sch</i> Blagoveshchensk Shehdryn	<i>chich</i> Chchedrine	<i>sch</i> Blagoveshchensk Shehdryn	<i>sch</i> Blagoveshchensk Shehdryn	<i>sch</i> Blagoveshchensk Shehdryn	<i>š</i> Blagoveshensk Shehdryn	<i>sch</i>	kasu guzietan (Letra hau bielorrusieraz ez dago)
Щ. щ (бг) Тьгровице	<i>x</i> Targovite	<i>sh</i> Targovishte	<i>cht</i> Targovichte	<i>sh</i> Targovishte		<i>sch</i> Targovischte	<i>š</i>	<i>sh</i>	kasu guzietan
Ъ. ъ	ez da transkribatzen	ez da transkribatzen	ez da transkribatzen	ez da transkribatzen	ez da transkribatzen	ez da transkribatzen	-		kasu guzietan (Letra hau bielorrusieraz eta ukraineraz ez dago)
Ъ. ъ (бг) Велико Тьгровице	<i>a</i> Veliko Tarmovo	<i>a</i> Veliko Tarmovo	<i>a</i> Veliko Tarmovo	<i>a</i> Veliko Tarmovo	<i>a</i> Veliko Tarmovo	<i>a</i> Veliko Tarmovo	<i>a</i> Veliko Tarmovo	<i>a</i>	kasu guzietan

	eu	es	fr	en	ca	de	ISO 9	transkripzio ofizialak bielorrusiera ukrainera bulgariara	Oharra
Errusiera Bielorrusiera Ukrainera Bulgariera									
Беларуская Українська Българска	Чэбoкcaры	Чэбoкcaры	Teбeбoкcaры	Чэбoкcaры	Teбeбoкcaры	Teбeбoкcaры	Чэбoкcaры	Чэбoкcaры	kasu guzizitan (Letra hau ukraineraz eta bulgariaraz ez dago)
Беларуская Українська Българска	Тшэбoкcaры ez da transkribatzen Tyumen Dalnegorsk	Чэбoкcaры ez da transkribatzen Tyumen Dalnegorsk	Teбeбoкcaры ez da transkribatzen Tyoumen Dalnegorsk	Чэбoкcaры ez da transkribatzen Tyumen Dalnegorsk	Teбeбoкcaры ez da transkribatzen Tyoumen Dalnegorsk	Teбeбoкcaры ez da transkribatzen Tyumen Dalnegorsk	Чэбoкcaры Tyumen Dalnegorsk	Чэбoкcaры	kasu guzizitan (Letra hau ukraineraz eta bulgariaraz ez dago)
Ю.э Улан-Удэ	Улан-Удэ	Улан-Удэ	Оулан-Оуде	Улан-Удэ	Улан-Удэ	Улан-Удэ	Улан-Удэ	Улан-Удэ	kasu guzizitan (Letra hau ukraineraz eta bulgariaraz ez dago)
Ю.а (1) Юрий Южый (2) Тюмень	Юри Juri Juzyny	Юри Yuri Yuzyny	Юри Iouri Iouiny	Юри Yuri Yuzyny	Юри Iuri Iujini	Юри Juri Juschny	Юри Urij Uznyi	Юри yu yu yu	(1) hitz-hastieran
Я.я (1) (2) Ярославль Красноярск Магаковский	Ярославль ia Krasnoyarsk Matakovski	Ярославль ia Krasnoyarsk Mayakovski	Ярославль ia Krasnoyarsk Matakovski	Ярославль ia Krasnoyarsk Mayakovsky	Ярославль ia Krasnoyarsk Matakovski	Ярославль ia Krasnoyarsk Majakovski	Ярославль ia Krasnoyarsk Majakovskij	ia ya ya ya ia ta ya	(1) hitzaren hastieran (2) gainerako kasuetan

³ g) erabiltzen da **yr** (z/f) transliterazeko. **ж** (z/f) letraren transliterazioarekin ez nahastearen
⁴ Ukrainerazko **ж**, **и**, **ч** eta **ю** kontsonanteak bikoiztu daude, bakoitza egin daitezke transliterazioa erraztearen. Adibidez: **Жуковский—Zupovskia** transliteratu daitezke, eta ez derrigor **Zupovskia**.
⁵ Ukraineraz -**ий**-z digrafoaren amaierako -**е**-z erdiera transkribatu ohi da beste hizkuntzetan, baina, eremuaren kiko kohereziaz, auskaraz ez transkribatzea proposatzen da.
⁶ Apostrofoa eta **ь** zena transliteratu gabe utzi daitezke (adibidez, **Юрий—Iuri** transliteratu daitezke, eta ez derrigor **I'Yuri**), baina **и** kasuetan izan ezik, hurrek **о** eta **и** transliteratzen dira beti.

3. ADIBIDEAK

Hona hemen aurreko transkripzio-taula aplikatuz nola transkribatzen diren euskarara jatorriz alfabeto zirilikoa idatzitako zenbait pertsona-izen ezagun (leku-izenen adibideak Europako hiriei buruzko arauan ikus daitezke):

euskara	jatorrizko idazkera	gaztelania	frantsesa	ingeleza	alemana	ISO 9
Bielorrusia						
Aliaksandr Lukaxenka (bielorrusieratik transkribatua)	Аляксандр Лукашэнка (bielorrusiera) Александр Лукашенко (errusiera)	Aleksandr Lukashenko	Aliaksandr Loukachenka / Aleksandr Loukachenko	Alexander Lukashenko	Aljaksandr Lukaschenka	Aláksandr Lukašénka
Stanislau Xuxkevitz	Станіслаў Шушкевіч	Stanislaw Shushkevich	Stanislaw Chouchkievitch	Stanislau Shushkevich	Stanislau Schuschkevitsch	Stanisláý Šuškévič
Bulgaria						
Aleksandar Stambolijski (transliterazio ofiziala: Aleksandar Stambolijski)	Александър Стамболийски	Alejandro Stamboliski	Alexandre Stambolijski	Aleksandar Stamboliyski	Aleksandar Stambolijski	Aleksand'ir Stambolijski
Georgi Parvanov (transliterazio ofiziala: Georgi Parvanov)	Георги Парванов	Georgi Parvanov	Gueorgui Parvanov	Georgi Parvanov	Georgi Parwanow	Georgi P'rvanov
Khristo Stoitskov (transliterazio ofiziala: Hristo Stoichkov)	Христо Стоичков	Hristo Stoichkov	Hristo Stoitchkov	Hristo/Khristo Stoichkov	Christo Stoitschkow	Hristo Stoičkov
Todor Zhivkov (transliterazio ofiziala: Todor Zhivkov)	Тодор Живков	Todor Zhivkov	Todor Jivkov	Todor Zhivkov	Todor Schiwkow	Todor Živkov
Errusia						
Aleksandr Puxkin	Александр Пушкин	Aleksandr Pushkin	Alexandre Pouchkine	Alexander Pushkin	Alexander Puschkin	Aleksándr Púshkin
Aleksandr Solzhenitsin	Александр Солженицын	Aleksandr Solzhenitsyn	Alexandre Soljenitsyne	Aleksandr Solzhenitsyn	Alexander Solschenizyn	Aleksándr Solženitsyn
Andrei Sakharov	Андрей Сахаров	Andréi Sájarov	Andrei Sakharov	Andrei Sakharov	Andrei Sacharow	Andréj Sáharov
Anton Txekhov	Антон Чехов	Antón Chéjov	Anton Tchekhov	Anton Chekhov	Anton Tschechow	Antòn Chéchev
Boris Jeltsin	Борис Ельцин	Boris Yeltsin	Boris Eltsine	Boris Yeltsin	Boris Jelzin	Boris El'cin
Dmitri Medvedev	Дмитрий Медведев	Dmitri Medvédev	Dmitri Medvedev	Dmitry Medvedev	Dmitri Medwedew	Dmitrij Medvedev
Dmitri Xostakovitz	Дмитрий Шостакович	Dmitri Shostakóvich	Dmitri Chostakovitch	Dmitry Shostakovich	Dmitri Schostakowitsch	Dmitrij Šostakovič
Fiodor Dostoievski	Фёдор Достоевский	Fiódor Dostoievski	Fiodor Dostoievski	Fyodor Dostoyevsky	Fjodor Dostojewski	Fédor Dosto'evskij
Igor Stravinski	Игорь Стравинский	Ígor Stravinski	Igor Stravinski	Igor Stravinsky	Igor Strawinski	Igor' Stravinskij
Iosif Stalin	Иосиф Сталин	Iósif Stalin	Joseph Staline	Josef Stalin	Josef Stalin	Iosif Stalin
Juri Gagarin	Юрий Гагарин	Yuri Gagarin	Iouri Gagarine	Yuri Gagarin	Juri Gagarin	Ūrij Gágárin

Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara...

euskara	jatorrizko idazkera	gaztelania	frantsesa	ingeleza	alemana	ISO 9
Lenin (Vladimir Ilitx Uliianov)	Ленин (Владимир Ильич Ульянов)	Lenin (Vladimir Ilich Uliánov)	Lénine (Vladimir Ilitch Oulianov)	Lenin (Vladimir Ilyich Ulyanov)	Lenin (Wladimir Iljitsch Uljanow)	Lénin (Vladimir Il'ič Ul'ánov)
Leon Trotski (Lev Davidovix Bronstein)	Лев Троцкий (Лев Давидович Бронштейн)	León Trotski (Lev Davidovich Bronstein)	Léon Trotski (Lev Davidovitch Bronstein)	Leon Trotsky (Lev Davidovich Bronstein)	Leo Trotzki (Lew Dawidowitsch Bronstein)	Lev Tróckij (Lev Davidovič Bronštéjn)
Leonid Brezhnev	Леонид Брежнев	Leonid Brézhnev	Léonid Brejnev	Leonid Brezhnev	Leonid Breschnev	Leonid Bréžnev
Lev Tolstoi	Лев Толстой	Lev Tolstói / León Tolstoy	Léon Tolstoï / Lev Tolstoï	Leo Tolstoy / Lev Tolstoy	Lev Tolstoi	Lev Tolstóy
Maksim Gorki (Aleksi Maksimovix Pexkov)	Максим Горький (Алексей Максимович Пешков)	Maksim/Máximo Gorki (Alekséi Maksimovich Pëshkov)	Maxime Gorki (Alekséi Maksimovitch Pechkov)	Maxim Gorky (Aleksy Maksimovich Peshkov)	Maxim Gorki (Alexei Maximowitsch Peshkow)	Maksim Gor'kij (Alekséj Maksimovič Pëshkov)
Maria Xarapova⁷	Мария Шарапова	Mariya Sharápova	Maria Sharapova/ Charapova	Maria Sharapova	Maria Scharapowa	Mariya Sharapova
Mikhail Gorbaxov	Михаил Горбачёв	Mijail Gorbachov	Mikhail Gorbachev	Mikhail Gorbachev	Michail Gorbatschow	Mihail Gorbáčëv
Nikita Khrustxov	Никита Хрущёв	Nikita Jrushchov	Nikita Khrouchtchev	Nikita Khrushchev	Nikita Chruschtschow	Nikita Hruščëv
Nikolai Rimski-Korsakov	Николай Римский-Корсаков	Nicolái Rimski-Kórsakov	Nikolai Rimski-Korsakov	Nikolai Rimsky-Korsakov	Nikolai Rimski-Korsakov	Nikolaj Rimskij-Korsakov
Piotr Txaikovski	Пётр Чайковский	Piotr Chaikovski	Piotr Tchaikovski	Pyotr Tchaikovsky	Pjotr Tschaikowski	Pëtr Čajkovskij
Rudolf Khametovix Nuriev⁸	Рудольф Хаметович Нуриев (errusiera) Rudolf Xámát uli Nuriev (tatarera)	Rudolf Xámát uli Nuriev/ Rudolf Jametovich Nureyev	Roudolf Khametovitch Nouriev	Rudolf Khametovich Nureyev	Rudolf Chametowitsch Nurejew	Rudol'f Hametovič Nuriev
Vladimir Maiakovski	Владимир Маяковский	Vladimir Mayakovski	Vladimir Maïakovski	Vladimir Mayakovsky	Wladimir Majakowski	Vladimir Maïkóvskij
Vladimir Putin	Владимир Путин	Vladimir Putin	Vladimir Poutine	Vladimir Putin	Wladimir Putin	Vladimir Pútin
Ukraina						
Andrii Xevtxenko	Андрій Шевченко	Andriy Shevchenko	Andriï Chevtchenko	Andriy Shevchenko	Andrij Schewtschenko	Andrij Ševčenko
Julia Tymoxenko	Юлія Тимошенко	Yúliya Tymoshenko	Iouliya Tymochenko	Yulia Tymoshenko	Julija Tymoschenko	Úliá Timošenko
Leonid Kutxma	Леонід Кучма	Leonid Kuchma	Leonid Koutchma	Leonid Kuchma	Leonid Kutschma	Leonid Kyčma
Viktor Justxenko	Віктор Ющенко	Viktor Yúshchenko	Viktor Iouchtchenko	Viktor Yushchenko	Wiktor Juschtschenko	Viktor Úšenko

Euskaltzaindiak 2009ko otsailaren 27an onartua, Donostian

⁷ AEBn bizi denez, euskaraz ohikoa da ingeles grafiaz idaztea (baita frantsesez eta gaztelaniaz ere).⁸ Ohikoa da *Nureyev* grafiaz idaztea, izen artistikoa grafia horrekin zabaldu baitzen.

4. ERANSKINA: ERRUSIERA, BIELORRUSIERA, UKRAINERA ETA BULGARIERAREN TRANSLITERAZIO OFIZIALEN EGOERA

Errusiera

Errusierazko izenak –eta, oro har, alfabeto zirilikoa erabiltzen duten gainerako hizkuntzen izenak– latindar alfabetora aldatzeko, hainbat transliterazio-sistema daude. Sobietar Errepublikak Sozialisten Bata-suna estatu ohiak GOST 16876-71 sistema ofizial bihurtu zuen 1971n, eta Nazio Batuen Erakundeak sistema hori bera onartu zuen 1987an. Dena den, 2002an Errusiak ISO 9 sistema ofizial bihurtu zuen GOST 7.79-2000 izenez. Nolanahi ere, nazioarteko transliterazio-sistemak, zeinu diakritiko bereziak erabiltzen baitituzte, ez dira erroto ohiko erabileran, eta hizkuntza nagusi gehienetan transkripzio praktikoak erabiltzen dira, hizkuntza bakoitzaren grafia eta ahoskeraren arabera moldatuak.

Bielorrusiera

Errusierarekin eta, oro har, alfabeto zirilikoa erabiltzen duten gainerako hizkuntzekin gertatzen den bezala, sistema bat baino gehiago dago bielorrusierazko izenak latindar alfabetora aldatzeko⁹. Gainera, Bielorrusian bertan bi sistema ofizial daude: GOST 7.79 sistema (ISO 9 sistema bera da), toponimiarrak izan ezik; eta toponimiarrak sistema («Инструкция по транслитерации географических названий Республики Беларусь буквами латинского алфавита»: bielorrusierazko izen geografikoak latindar alfabetora transliteratzeko jarraibidea), 2000. urtean onartua; 2007. urtean berrikusia izan zen, eta digrafo batzuk kendu ziren, Nazio Batuen aholkuari jarraituz. Sistema hori da, hain zuzen, Nazio Batuen UNGEGN taldeak aholkatzen duena, baina Nazio Batuek ez dute oraindik ofizialki sistema hori onartu¹⁰.

Nolanahi ere, nazioarteko transliterazio-sistemak, zeinu diakritiko bereziak erabiltzen baitituzte, ez dira erroto ohiko erabileran, eta hizkuntza nagusi gehienetan transkripzio praktikoak erabiltzen dira, hizkuntza bakoitzaren grafia eta ahoskeraren arabera moldatuak.

Ukrainera

Errusierarekin eta, oro har, alfabeto zirilikoa erabiltzen duten gainerako hizkuntzekin gertatzen den bezala, sistema bat baino gehiago dago ukrainerazko izenak latindar alfabetora aldatzeko. Gainera, bi transliterazio-sistema ofizial daude Ukrainan:

- Ukrainako transliterazio-sistema ofiziala¹¹, 1996an ezarria Ukrainako leku-izenak ukraineratik ingelesera transliteratzeko. Ukrainaren independentzia aurretik –1991– leku-izenak erusieratik aldatzen ziren latindar alfabetora, eta hori aldatzeko ofizial bihurtu zuen Ukrainak bere sistema. Sistema, berez, ingeleserako baino ez da ofiziala, eta Nazio Batuen Erakundeak erabiltzen du, baita estatu batzuen atzerri-zerbitzu ofizialek ere. Sistemak ez du diakritikorik erabiltzen.
- Ukrainako pasaporteetan pertsona-izenak transliterazio-sistema ofiziala, 2007an Ukrainako Ministro Kontseiluak ofizial bihurtua. 1996an leku-izenetarako ofizial bihurtutako sistema bera da. Lehentsitako transliterazio-sistema da pasaporteetan ukrainerazko pertsona-izenak ingelesez agerrarazteko. Hala ere, norberak aukera du nahi duen ingelesezko grafia emateko bere izen-deiturei.

Nazioarteko transliterazio-sistemak ez dira erroto hizkuntzetan, zeinu diakritiko bereziak erabiltzen baitituzte, eta hizkuntza nagusi gehienetan transkripzio praktikoak erabiltzen dira, hizkuntza bakoitzaren grafia eta ahoskerara hurbiltzen direnak.

⁹ Bielorusiera latindar alfabetoan ere idatzi zen garai batean, baina gaur egun ez da ofiziala.

¹⁰ No romanization system for Byelorussian (Belarusian) has been approved at the United Nations conferences on the standardization of geographical names (REPORT ON THE CURRENT STATUS OF UNITED NATIONS ROMANIZATION SYSTEMS FOR GEOGRAPHICAL NAMES. Compiled by the UNGEGN Working Group on Romanization Systems. Version 3.0, March 2008) (http://www.eki.ee/wgrs/rom2_be.pdf)

¹¹ <http://www.brama.com/art/transliterationu.html> (ukraineraz); <http://www.rada.gov.ua/translit> (ingelesez)

Bulgariara

2007ko urtarrilaren lehenaz geroztik, bulgariara hizkuntza ofiziala da Europar Batasunean. Bulgariara latindar alfabetora aldatzeko, hainbat sistema daude, nazioartekoak (zeinu diakritikoak erabiltzen dituzte) eta hizkuntza bakoitzerako transkripzio praktikokoak (zeinu diakritikorik erabiltzen ez dituztenak). Bulgariako estatuak, duela gutxi arte, ez zuen transliterazio-sistema ofizialik. Ikusirik Bulgarian bertan gero eta gehiago erabiltzen zela alfabeto latindarra komunikazio-sistema berrietan (mezu elektronikokoak, telefono bidezko mezuak), eta hor zebilen irizpide-aniztasunari kaltegarri iritzita, Bulgariako Gobernuak diakritikorik gabeko sistema bat ofizial bihurtu du alfabeto zirilikoz idatzitako bulgariara latindar alfabetora aldatzeko.

Sistema hori 1990eko hamarkadan sortu zuen Bulgariako Zientzia Akademiaren Matematika eta Informatika Institutuko Logika Matematikoko Sailak, eta 1995 erabili zen ofizialki lehen aldiz bulgariarazko Antartikako leku-izenak latindar alfabetora aldatzeko. 2006an, Bulgariako Gobernuak sistema hori onartu eta ofizial bihurtu zuen nortasun-agiritan, errepede-seinaleetan, kale-izenetan, informazio-sistema ofizialetan, datu-baseetan, tokian tokiko webgune ofizialetan eta abarretan erabiltzeko, baita nazioartean erabiltzeko ere. Horretarako, *Bulgariara ulergarria*¹² izeneko programa abian jarri dute, eta 30.000 izen bereziz osatutako datu-base bat sortu dute bulgariarazko izen bereziak latindar alfabetora nola aldatu jakinarazteko (pertsone-izenak eta leku-izenak).

Transliterazio-sistema ofizialak ingelesari begira egina dago, hau da, ingelesaren grafia dago sistemaren oinarrian. Izan ere, ingelesa, gaur egun, *lingua franca* da munduan, eta horren aldeko apustua egin du Bulgariak, kontuan izanik badirela munduan ingeles-hiztunak ez diren milioika hiztun beren hizkuntzak ingeles-grafiaren arabera transkribatuak dituztenak edo ingeles-grafiaren arabera idazten direnak, hala nola Indiakoak edo Afrikako asko. Alde horretatik, ingelesaren grafia gero eta ezagunagoa da beste hizkuntzetako hiztunentzat ere, eta horretatik egin du hautu hori Bulgariako Gobernuak.

Funtsean, sistema ofizialak Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan ofiziala den BGN/PCGN sistema bezalako da, salbuespen gutxi batzuekin.

Ikusteko dago orain zer gertatuko den hurrengo urteetan hizkuntzaz hizkuntzako transkripzio praktikoekin (hala nola frantsesaren grafia, gaztelaniaren grafia edo alemanaren grafia darabilten sistemeekin). Uste izatekoa da Bulgariako Gobernuaren ofizialtasunaren babesarekin sistema ofiziala nagusituz joango dela, baina, gaur egun, eta sistema ofiziala berria dela kontuan izanda, ez da oraindik nabarmen nagusitu. Garbi dago, bestalde, diakritikoak erabiltzen dituzten transliterazio-sistemak ez direla nagusitu masa-komunikabideetan; arlo akademikoan, liburutegien katalogazio-zerbitzuen eta Nazio Batuen mendeko erakundeen barnean baino ez dira erabiltzen.

Bulgariako Gobernuaren sistema ofizialaren araberako transkripzioa nazioartean nagusituko balitz, euskara ere nazioarteko joerara biltzea komeniko litzateke.

¹² <http://transliteration.mdaar.government.bg/trans.php>